


10 inklusiorako jokaera-proposamen eta tresna



Helburuak

Bizkaian dibertsitate funtzionala, fisikoa, kognitiboa, sentzoriala, kulturala edo generokoa duten pertsonen eskubideak goatzeko oztoporik izan ez dezaten lortzea.

Diskriminazio-espazioak espazio inklusiboetan bihurtzea.

1



Hausnartzea

Gizarte-erakundeek eta instituzio publikoek gure jokatzeko moduari buruz hausnartu eta aldatu behar dugu.

Pertsona bakoitzak dituen gaitasun, aukera eta mugei arreta jarri behar diegu norberaren beharrei erantzuteko. Horrela, eskubide guztiez gozatuz, aukeratzen duen bizitza bizitzeko aukera emango dion esku-hartzea egin ahal izango dugu.



Sarean lan egitea

Pertsonekin gizarteko esku-hartzean lan egiten dugun instituzio eta erakundeek taldean lanean aritu eta elkarrengandik ikasi behar dugu. Horrela lortuko dugu pertsona guztiek eskubideez baldintza berdinekin gozatu dezatela eta bizitza duin bat izan dezatela.


3

Parte-hartzeko espazioak sortzea

Gizarte-erakunde eta instituzio publikoek pertsona guztiak seguru sentitzen diren espazioak sortu behar ditugu.

Bereziki, arrazoi hauengatik baztertuak izan diren pertsonak: jaioterria, arraza, etnia, egoera ekonomikoa, aniztasuna, sexu-orientazioa edo genero identitatea.

Funtsezkoa da pertsona horiek parte hartu eta norberaren esperientzia kontatu ahal izatea. Baita diskriminazio-espazioak espazio inklusiboak bihurtzea ahalbidetzen duten proposamenak egin ahal izatea ere.



4

Justizia soziala

Justizia sozialak desberdintasunak ezabatzean edo gutxitzean datza, pertsona guztientzat eskubide eta aukeren berdintasuna lortzeko.

Funtsezkoa da justizia sozialez jokatzearrazoi desberdinengatik desabantaila-egoeran dauden pertsonekin eta pertsona horien egoera guztiak kontuan hartzea.

Adibidez, laguntzarik ez izatea jasaten duten migratzaileentzat okerrago da desgaitasun funtzional, fisiko edo sentensorialen bat dutenean.

Beharrezkoa da pertsona bakoitzaren egoera eta gaitasunak baloratzea justizia sozialean eta pertsonen eskubideetan oinarritutako esku-hartze bat egiteko.



5

Erakunde eta instituzioetako langileak trebatzea

Gizarte-erakunde eta instituzioetako lan-taldeek trebatuta egon behar dute migratzaileei, errefuxiatuei eta **arrazializatu**ei eragin diezaieketen egoerei buruz.

Adibidez, dibertsitate funtzional, fisiko sentsoial, kultural edo sexualarekin zerikusia duten egoerak.

Erakundeetako profesional-taldeek jasotzen duten prestakuntzak bat etorri behar du lan egiten duten errealitatearekin, pertsonak ulertu eta esku-hartze egokia egin dezaten.

Arrazializatua: Arraza batekoa izateagatik diskriminazioa jasaten duen pertsona.





Pertsoneri buruzko datuak biltzea

Migratzaileekin, errefuxiatuekin eta arrazializatuekin lan egiten duten erakunde eta instituzioek posible diren datu guztiak bildu behar dituzte, pertsona horien egoera ezagutzeko eta kasu bakoitzerako irtenbide egokiak bilatzeko.

Lan hori zailagoa da harrerako herrialdean bizitzeko legezko dokumenturik ez duten pertsonen kasuan.

Batez ere, pertsona horiek parte hartzeko espazioetan sartzeko zailtasunak dituztenean dibertsitate motaren bat dutelako edo gizarte diskriminazioa jasaten dutelako.



7

Irisgarritasun unibertsala lortzea

Funtsezkoa da diskriminazioa jasaten edo zailtasun erantsiak dituzten migratzaileen, errefuxiatuen eta arrazializatuen parte-hartzea espazio irisgarri eta inklusiboagoak lortzeko.

Pertsona horiei esker argi ikusten da egokitzapenak egin behar direla, hala nola, testuak hizkuntza desberdinetara itzultzea, letra handiagoa erabiltzea eta materialak braillen sortzea, azpтитuluak eta zeinu hizkuntza dituzten bideoak egitea eta testuak Irakurketa Errazera egokitzea.



Irisgarritasun unibertsala: Objektu, zerbitzu eta ingurune guztiek izan behar dituzten ezaugarriak, pertsona guztiek ulertzeko, erabiltzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten.

8

Zerbitzuetara sartzeko prozedurak berrikustea

Legezko dokumenturik ez duten migratzaileek, errefuxiatuek eta arrazializatuek ezin dute zerbitzu espezializatu askotara sartu.

Egoera hori larriagoa da pertsona horiek desgaitasun funtzional, fisiko, kognitibo edo sensoriala dutenean.

Izan ere, laguntza-zerbitzu gehiago behar dute, baina ez dute sarbiderik beren egoera legalagatik.



9



Argibide-dokumentu gehiago sortzea

Beharrezkoa da migratzaileek izan ditzaketen egoera legal eta administratiboak eta beren eskubideak azaltzen dituzten gida eta dokumentu gehiago izatea.

Baita Bizkaian eta Euskadin talde horientzako dauden baliabideak azaltzen dituzten dokumentuak ere falta dira.

10



Partekatutako konpromisua eta erantzukizuna

Gizarte-erakundeek, instituzio publikoek eta orokorrean herritarrek konpromisoa hartu behar dute Euskadin bizi diren pertsona guztien giza eskubideak errespetatu daitezen jokatzeko eta lortzeko.